

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sustapen Departamentuak 270.000 euro erabiliko du 2018ra arte bide-segurtasuneko azterketak egiteko

Istripuak pilatzen diren zatiak hautematea, elkarguneetako seinaleak hobetzea edo zolaren itsaspena aztertzea bilatzen du, besteak beste

Martes, 23 de diciembre de 2014

Nafarroako Gobernuak, Sustapen Departamentuaren bidez, 270.000 euro erabiliko du 2015-2018 aldirako Foru Komunitateko errepide-sarearen bide-segurtasuneko hainbat azterketa egiteko. Urte anitzeko gastua izango da, eta urtero 67.500 euro banatuko da.

Horretarako, Obra Publikoen zuzendari nagusiari lanak kontratatzeke baimena eman zaio; haren zuzendaritza Sustapen Departamentuko funtzionario baten esku geratuko da, eta etorkizunean egin beharreko jarduerak zuzenduko dituen informazioa jasotzea du xede.

Lan horien barnean, honako jarduera hauek egingo dira: istripuak pilatzen diren bide-zatiak hautematea (TCA), hobetzeko ahal handia duten bide-zatiak hautematea (TAPM) eta baita motorzaleek istripu gehien dituzten bide-zatiak hautematea ere (TCAM); istripu-mailaren bilakaera aztertzea eta aurreko jarduerak zer eraginkortasun izan duten aztertzea; azterketan identifikatutako TCA bakoitza zehaztasunez analizatzea, hala badagokio; eta fauna basatia harrapatzearen ondoriozko istripu-mailen gune arriskutsuak identifikatzea; bai eta zolaren itsaspen-azterketa egitea ere sareko bide-zati kritikoenetan.

TCAen azterketa zehatzari eta bide-segurtasunaren azterketa egiteari dagokionez, honako hau da helburua: errepideko zer egoerek izan dezaketen eragina istripuetan. Horretarako, haietako bakoitza eta beren egoera zehatz-mehatz aztertzen da (galtzada-irteerak, oinezkoak harrapatzea, lehentasuna ez errespetatzea...), bai eta kasu bakoitzerako errepideak zer ezaugarri dituen ere.

Zehazki, ikuskatzen diren alderdiak ondorengoak dira: balizak, seinaleztapen bertikala eta horizontala, euste-sistemak, zeharbideak (gidariak hirialdeko pasabidea egoki ulertzen duen eta abiadura murrizteko elementuak behar bezala funtzionatzen duten), elkarguneak (diseinua, ikuspena, sarbideak), ibilbideak edo bideko errodadura-geruzaren egoera,



azterketa modu berezian egingo diren alderdiak.

Bihurguneak, elkarguneak, aurreratzeak eta CRT

Aipatu denez, lanek ondorengo hiru elementuak zehatz-mehatz aztertuko dituzte: bihurguneak, elkarguneak eta aurreratzeak. Lehenengo kasuan, bihurgune bakoitzaren baldintza geometrikoek zer baldintza duten aztertuko da eta haien gaineko seinaleztapena egokia den, hurbiltzeko eta ibilbideko abiadura kalkulatz; bigarrenengan, elkarguneen ezaugarriak aztertuko dira (lehentasun-informazioa, seinaleztapena, aurre-seinaleztapena, ibilbideen baieztapena eta helmugak adierazteko taulak).

Aurreratzeetan, dagoen ikuspena behar bestekoa den egiaztatuko da maniobra segurtasun-baldintzetan egiteko. Seinaleztapenean, ondo jarrita dauden ikusiko da, plantan nahiz altxaeran, altueran eta biderako distantzian, bai eta elementu bertikal nahiz horizontalen arteko koordinazioa ere, baliza egokia eta bideko erabiltzeek zer babes-maila duten seinaleztatzeko taula eta zutabe handien kasuan.

Aurreko guztiaren osagarri, azterketak galtzadaren itsaspen-azterketa bat egitea ere jasotzen du; horretarako, CRT izenekoa (Zeharkako Marruskaduraren Koefizientea) lortuko du; hura erdietsiko da, euri handiko baldintza imitatzen duen proba batekin, ura entsegu-gurpil bati proiektatuz.